Zumaiako Udala



# 99. OSOKO BILKURAKO AKTA

Zumaiako herrian, 2015eko azaroaren 19an, arratsaldeko seietan, udaletxe honetako batzar aretoan Udalbatza eratu da ezohiko bilkura egiteko, aurrez zehaztutako eguneko aztergaien arabera. Garaiz eta zuzen deitu direlarik, Udalbatzako kide hauek bertaratu dira:

**Lehendakaria:** Oier Korta Esnal jna.

**Bertaratutako zinegotziak:**
M. Cruz Alvarez Aparicio and.
Gotzon Embil Unanue jna.
Jon Joseba Iraola Rezola jna.
Cristina Vicente Iciar and.
Xabier Garmendia Iztueta jna.
Alex Oliden Antia jna.
Arritokieta Iribar Egaña and.
Joseba Josu Azpiazu Azkarra jna.
Josu Arrieta Arriola jna.
Ione Muguerza Egaña jna.
Nerea Eizagirre Telleria and.
Arritokieta Marañon Basarte and.

**Ez bertaratuak**

**Idazkaria:** Gorka Urgoiti Agirre

## EGUNEKO AZTERGAIAK

# 1.- PROPOSAMENAK:

## 1.1.- ZUMAIAKO UDAL MUSIKA PATRONATUA DESEGITEKO HASIERAKO ONARPENA EMATEA, BIDEZKO BADA.

Alkateak gai hau zerrendatik ateratzea erabaki du, gehiago lantzeko.

**---------------------------**

## 1.2.- ZUMAIAKO SAN JUAN EGOITZA ORGANISMO AUTONOMOA DESEGITEKO HASIERAKO ONARPENA EMATEA, BIDEZKO BADA.

**PROPOSAMENA**

**LEHENENGOA**.- 2/2008 Legeak, Gizarte Zerbitzuei buruzkoak, Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte zerbitzuen euskal sistemaren katalagoan jasota dauden zerbitzu eta diru-laguntzak zerrendatzen ditu. Bigarren mailako arretako gizarte zerbitzuen artean daude autonomía mugatuak eragindako premiei erantzuteko *eguneko zerbitzua edo zentroa eta adineko pertsonentzako egoitzak.* Legearen 41.3 artikuluak ezarrita dauka *bigarren mailako arretako gizarte-zerbitzuen eskaintza* foru aldundiaren eskumenekoa dela. Gipuzkoako Lurralde Historikoari dagokionez, etxeko laguntza eta adineko pertsonentzako eguneko zentroa eta egoitzen zerbitzua, hainbat kasutan, zuzenean edo zeharka Udalek kudeatzen dituzte. Hartara, legeari men egitearren, adineko pertsonentzako zentroak Gipuzkoako Foru Aldundiari eskualdatzeko prozesua ireki da. Zumaiako adineko pertsonentzako San Juan Egoitzaren eskualdaketa prozesua abiarazi da, beraz.

Eskualdaketa gauzatzeko hitzarmena adostu dute Gipuzkaako Foru Aldundiak, Zumaiako Udalak eta San Juan Egoitzak; Gipuzkoako Foru Aldundiaren kasuan, 2015eko martxoaren 10eko batzarraldian Diputatuen Kontseiluak onartu zuen; Zumaiako Udalak, berriz, Osoko Bilkuraren 2014ko abenduaren 19ko eta 2015eko apirilaren 30eko akordioaren bitartez onartu zuen hitzarmena; San Juan Egoitzaren kasuan, Zuzendaritza Batzordeak 2014ko abenduaren 15eko eta 2015eko apirilaren 22ko batzarraldietan onartu zuen.

**BIGARRENA**.- Hitzarmenak, besteak beste, ondorengo estipulazioak jasotzen ditu:

a.- Gipuzkoako Foru Aldundiak beregain hartzen du San Juan egoitzak egun persona adiduentzat ematen duen zerbitzua.

b.- Zumaiako udalak Foru Aldundiari ondorengo ondasun higiezina eskualdatuko dio:

HIRITARRA. ZAZPI ZENBAKIA – ONGINTZAKO ETXE BERRIA, Zumaiako San Jose kalean. Beheko oina eta bi solairu altu ditu, eta lorategi eta baratze propioaz dago inguratuta. Mugakide ditu: hegoaldean, San Jose kalea; iparraldean, gurdibidea; ekialdean, "Ubillos" dorretxea (Kaldesenekua); eta mendebaldean, Iturrikoa baserriaren lurrak. Azalera: Hiru mila hirurehun eta hirurogeita sei metro karratu (3.366 m2).

Lorategia eta baratzea zeuden lekuan beste eraikin bat eraiki da: EGOITZA OSPITALEA HANDITZEA. Forma laukizuzena du: hamahiru metro eta laurogeita hamar dezimetro alde batetik eta hamaika metro hirurogeita hamabost dezimetro karratu bestetik; horrela, guztira, ehun eta hirurogeita hiru metro eta hogeita hamabi dezimetro karratu dira. Erdisotoko oina, beheko oina eta goiko oin bat ditu. Mugakide ditu, alde guztietatik, bere lurrak. San Jose kaletik sartzen da eraikinean, eskailera baten bidez.

**Kargak:** Ez du kargarik.
**Erregistro datuak:** Inskripzioa Azpeitiko Jabetzaren Erregistroan: 1151 liburukia, 94 liburua, 31 folioa, 4818 finka.
**Katastroko datuak:** Zenbaki finkoa: 3037144 Y. Erreferentzia katastrala: 6094314.
**Higiezinaren kalifikazioa:** Jabari publikoko ondasuna.
**Hirigintzako datuak:** Ekipamendu soziala, G.5.3.1. HA 03 Arrabal Odieta, San Jose.

Nolanahi ere, Lagapenaren aurretik, Udalak hau bereiziko du aipatutako 4818 erregistro-finkatik, beste erregistro-finka ezberdin bat osatzeko: Egoitza Ospitalea Handitzea izeneko eraikina eta horren funtzionamendurako behar den lur zatia. Erregistro-finka sortuaren titularra Udala izango da.

c.- Foru Aldundia zerbitzuaren gaineko eskumena bere gain har dezan, Zumaiako Udalak edo San Juan Egoitzak hitzartutako kontratuetatik eratorritako eskubide eta betebeharretan subrogatuko da.

d.- San Juan Egoitzak emandako zerbitzuari atxikita dauden langileak, Kabia erakunde autonomoren titulartasunekoak izatera pasako dira.

e.- Zumaiako Udalak edo San Juan Egoitzak modu iragankorrean erabiltzaileen ekarpenak kudeatuko ditu Gipuzkoako Foru Aldundiak bere antolaketa egokitu arte eta gehienez 2015eko abenduaren 31 bitartean. Epe iragankorra amaituta, Zumaiako Udalak edo San Juan Egoitzak bi hilabeteko epean egin diren kobrantza eta ordainketak aurkeztuko ditu Gipuzkoako Foru Aldundiak hilabeteko epean likidazioa egiteko. Saldo positibo edo negatiboaren arabera itzulketak egingo dira.

**HIRUGARRENA**.- Zumaiako Udalak “Zumaiako Zaharren Egoitza” herri-fundazioa eratu zuen eta estatutuak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 1990ko urtarrilaren 10ean argitaratu zituen.

Nahiz eta fundazio moduan eratu, egun lege aldaketa batzuen ondorioz, 7/1985 Legearen 85.3 artikuluaren kariaz, hain zuzen ere, organismo autonomo bilakatu da.

San Juan Egoitzaren disoluzioa gauzatzeko prozedura 7/1985 Legearen 49. artikuluan ezarritako tramiteei eutsi beharko dio, hau da, Osoko Bilkuraren hasierako onarpena, 30 egunez jendaurrean, eta epe horretan alegaziorik egotekotan Osoko Bilkurak erabaki, edo ez baleude behin-behineko erabakiak behin betiko izaera izango luke; nolanahi ere, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialera iragarkia ezinbesteko tramitea da.

Hasierako onarpenak, 47. artikuluaren arabera gehiengo osoa beharko du.

Kasuan disoluzioak, behin betikoz onartuta, ondare, kontratu, kontabilitatearen eta abarren integrazioa dakar udalean:

- San Juan egoitzak nortasun juridikoa galduko du erakunde bereiztu bezela.
- Egoitzaren eraikina eta hitzartutako gainontzeko lur-zatiaren atxikipena desegitea, eta, hortaz, Udalak berreskuratuko du ondasunaren kudeaketa, mantenua eta abar udal aurrekontuaren kargura. Baita atxikituta egon litezkeen bestelako ondasunak edo San Juan titulartasuneko ondare ondasunak ere.
- Egun indarrean dauden zerbitzuen kontratuak, Zumaiako Udalak bere gain hartuko ditu.
- San Juan Egoitzaren kontabilitatea udaleko kontabilitean integrazioa. Abenduaren 31 baino lehenago egitea kontu-integrazioa.
- Lan-kontratupeko langileak KABIA organismo autonomoaren eskumenekoak izatera pasako dira organikoki nahiz funtzionalki.

Nolanahi ere, onartutako hitzarmenaren arabera “San Juan Egoitzak” ematen duen zerbitzua Gipuzkoako Foru Aldundiaren pean geratuko denez gero, zehazkiago, KABIA organismo autonomoaren pean, aipatu integrazioa azken hartzailearekin egingo da, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin hain zuzen ere, beti ere azken hartzaile honek hitzarmenaren xedea betetzen badu.

Hori guztiagatik honako **PROPOSAMENA** egiten da:

*Lehenengoa.- Gipuzkaako Foru Aldundiaren alde “San Juan” izeneko egoitzan persona adinduentzat ematen den egoitza zerbitzuaren gaineko eskumenaren eskualdaketa gauzatzeko tramiteei hasierako onarpena ematea, bidezko bada. Hartara, San Juan Egoitza organismo autonomoaren disoluzioa onartzea.*

*Bigarrena.- Adostutako hitzarmena gauzatzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiari hitzartutako ondasunak eskualdatzea.*

*Hirugarrena.- Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean Osoko Bilkuraren onarpena argitaratzea, 30 lan-egunez jendaurrean egon dadin.*

Zumaian, 2015eko azaroaren 10ean

Batzordeko Lehendakaria
Oier Korta Esnal

**ERABAKI ZATIA**

**Aldeko botoak: 13 boto (6 EAJ-PNV, 6 EH BILDU, 1 ES-SV)**

**Kontrako botoak: 0**

**Abstentzioak: 0**

**ERABAKIA:** Zumaiako San Juan Egoitza organismo autonomoa desegiteko hasierako onarpena.

**------------------------**

## 1.3.- ADIERAZPEN INSTITUZIONALA: AZAROAREN 25EAN OSPATZEN DEN "EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA"

### AZAROAREN 25eko ADIERAZPEN INSTITUZIONALA "EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA"

Azaroaren 25a dela eta, data horixe izendatu baitu Nazio Batuen Erakundeak "Emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko Nazioarteko Eguna" gisa, gure gaitzespenik irmoena adierazi nahi dugu emakumeen aurkako edozein indarkeria-adierazpenekiko, zeinahi ere den (fisikoa, psikologikoa, sexuala, sinbolikoa….), bai halaber sexismo-modu guztiekiko (bai agerikoenak edo makroenak, zein egunerokotasunean ezikusiak eta normalizatuak dauden eraso mikroak) hala nola sexuen araberako rol estereotipatuak ezartzea edo bizitzaren esparru askotan emakumeak ikusgai ez egotea, besteak beste. Berretsi nahi dugu, era berean, arazo estruktural baten aurrean gaudela. Emakumezkoen eta gizonezkoen artean berdintasuna lortzeko, ezinbestekoa da berdintasun-politikak sustatzea, adituek zein nazioarteko erakundeek gomendatzen duten bezalaxe.

Emakumeen aurkako indarkeria gizartearen egitura patriarkalean oinarritzen da; izan ere, emakumezkoek diskriminazioa jasaten dute euren bizitzetan, gizarteak aukera desberdinak eskaintzen dizkie emakumezkoei eta gizonezkoei, eta oraindik ere jaiotza-sexuaren arabera

pertsonen askatasuna mugatzen du. Saiatu behar dugu gizarte bat eraikitzen, non pertsona guztiek askatasuna izango duten nahi duten bezalakoak izateko, non aukera izango duten potentzialtasun osoz garatzeko, eta non giza eskubideei begira berdintasunezko eta begirunezko tratua jasoko duten.

Gure xedea da pertsona guztiekiko tratu onak bermatuko dituen gizarte baten bizitzea, urrats bat gehiago emango duen gizartea eta, emakumeenganako indarkeriaren aurka agertzearekin batera, emakume eta gizonen arteko parekidetasunaren alde pauso errealak emango dituena. Gure aldarrikapena da pertsonen arteko harremanak errespetuan, autonomian eta berdintasunean oinarrituko dituen gizartea. Errespetatzea ez da bakarrik ez erasotzea; aitzitik, berorren esanahia ere da pertsona bakoitzak, berdintasunik ezak dakarren mugarik gabe, bere bizitza-ibilbidea irudikatu ahal izateko bermea edukitzea.

Erakundeetatik geure ardura sozial eta politikoa onartu behar dugu, tratu onak sustatuko dituen gizartea eraikitzeko orduan, eta horretarako gure aurreiritziak, rolak eta eguneroko jarrerak gure baitatik berrikusten hasi.

.

Horregatik guztiagatik:

- Konpromisoa hartzen dugu gure eskuduntzen esparruan politika aktiboa, integrala eta koordinatua garatzeko, tratu onen eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde.

- Indarkeria matxistaren aurkako protokoloa, Zumaiako Udalak onartutakoa, indarrean mantentzeko konpromisoa hartzen dugu.
- Zumaiako Udalak berdintasun unitatea behar adina baliabidez hornitu eta sendotzeko konpromisoa hartzen du, emakume eta gizonezkoen arteko berdintasun errealaren alde gure herrian lan egiteko xedearekin.
- Zumaiako Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritza enplazatzen ditu, emakume eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko aurrekontu partida egokiak xedatzera. Baita ere, emakumeen aurkako indarkeria eta tratu txarrak desagertarazteko neurriak hartzera, horretarako beharrezko diren baliabide guztiak erabiliz.
- Herritarrak gonbidatzen ditugu berdintasunaren aldeko konpromiso pertsonal eta kolektiboak hartzera, urteko egun guztietan. Baita azaroaren 25a dela eta Zumaian antolatu diren ekitaldietan parte hartzera, bai halaber gazteen arteko prebentzio eta hezkuntzarako “Beldur Barik” ekimenean.

Zumaian, 2015eko Azaroaren 11ean

EAJ-PNV EH BILDU SV-ES

**ERABAKI ZATIA**

**Aldeko botoak: 13 boto (6 EAJ-PNV, 6 EH BILDU, 1 ES-SV)**

**Kontrako botoak: 0**

**Abstentzioak: 0**

**ERABAKIA:** Azaroaren 25eko adierazpen instituzionala "emakumeenganako indarkeriaren aurkako nazioarteko eguna" onartu da.

**---------------------**

Eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkate Lehendakariak bilera amaitutzat eman du, arratsaldeko seiak eta zazpi minutu direnean eta nik, Idazkariak, fede ematen dut.

Idazkaria

**ACTA DE LA SESION PLENARIA nº 99**

En la villa de Zumaia, siendo las dieciocho horas del día diecinueve de noviembre de dos mil quince, se constituye en el Salón de Sesiones de esta Casa Consistorial del Pleno del Ayuntamiento, al objeto de celebrar sesión extraordinaria con arreglo al orden del día previamente señalado y habiendo sido citadas en tiempo y forma, acuden los siguientes miembros de la corporación:

**Presidente:** Sr. Oier Korta Esnal

**Concejales:**
Sra. M. Cruz Alvarez Aparicio
Sr. Gotzon Embil Unanue
Sr. Jon Joseba Iraola Rezola
Sra. Cristina Vicente Iciar
Sr. Xabier Garmendia Iztueta
Sr. Alex Oliden Antia
Sra. Arritokieta Iribar Egaña
Sr. Joseba Josu Azpiazu Azkarraga
Sr. Josu Arrieta Arriola
Sra. Ione Muguerza Egaña

Sra. Nerea Eizagirre Telleria
Sra. Arritokieta Marañon Basarte

**No presentes**

**Secretario:** Gorka Urgoiti Agirre

**ORDEN DEL DÍA**

**1.- <u>PROPOSICIONES:</u>**

**1.1.- APROBACION INICIAL, SI PROCEDE, DE LA DISOLUCION DEL PATRONATO MUNICIPAL DE ZUMAIA.**

El Alcalde ha decidido retirar el asunto para que pueda trabajarse más.

**-------------------**

**1.2.- APROBACION INICIAL, SI PROCEDE, DE LA DISOLUCION DEL ORGANISMO AUTONOMO RESIDENCIA SAN JUAN DE ZUMAIA.**

**PROPOSICIÓN**

**PRIMERA**.- La Ley 2/2008 sobre Servicios Sociales relaciona los servicios y prestaciones recogidos en el catálogo del sistema vasco de servicios sociales de la Comunidad Autónoma Vasca. Entre los servicios de atención secundaria se encuentra el servicio o centro de día que da servicio a personas de autonomía limitada y las residencias para la tercera edad. El artículo 41.3 de la Ley establece que es los servicios de atención secundaria son competencia de las Diputaciones Forales. En lo que se refiere al Territorio Histórico de Guipúzcoa, los servicios de ayuda domiciliaria, los centros de día y servicios de residencias los gestionan lo Ayuntamientos directa o indirectamente. Para dar cumplimiento al mandato de la Ley se ha iniciado el proceso

de transferencia a la Diputación Foral de Gipuzkoa de las residencia de ancianos, iniciándose así el proceso de transferencia de la Residencia San Juan de Zumaia.

A fin de ejecutar la transferencia la Diputación Foral de Guipúzcoa, el Ayuntamiento de Zumaia y la Residencia San Juan han firmado un convenio; En el caso de la Diputación Foral de Guipúzcoa dicho convenio se aprobó en el Consejo de Diputados celebrado el día 10 de marzo de 2015; el Ayuntamiento de Zumaia lo aprobó el convenio en sesión plenaria celebrada el 19 de diciembre de 2014 y mediante el acuerdo fechado el 30 de abril de 2015; En el caso de la Residencia San Juan lo aprobó en las sesiones celebradas el 15 de diciembre de 2014 y el 22 de abril de 2015.

**SEGUNDA**.- El convenio recoge entre otras las siguientes estipulaciones:

a.- La Diputación Foral de Guipúzcoa asume el Servicio para las personas mayores que ofrece hoy en día la Residencia San Juan.

b.- El Ayuntamiento de Zumaia transfiere a la Diputación Foral el siguiente bien inmueble:

**Descripción actual registral del inmueble (abreviada).:** URBANA. NUMERO SIETE- NUEVA CASA DE BENEFICENCIA, situada en la calle San José de Zumaia. Consta de planta baja y dos pisos y está rodeada de jardín y huerta propios. Confina en su fachada Sur, entrando con la calle San José; por el Norte, con camino carretil; por el Este, con la casa Torre "Ubillos" (Kaldesenekua); y, por el Oeste, con pertenecidos del caserío Iturrikoa. Superficie: tres mil trescientos sesenta y seis metros cuadrados (3.366 m2).

Sobre el terreno destinado a jardín y huerta se ha construido el siguiente edificio: AMPLIACION DEL ASILO HOSPITAL Tiene forma rectangular de trece metros noventa decímetros cuadrados, por once metros y setenta y cinco decímetros cuadrados, esto es, de ciento sesenta y tres metros y treinta y dos decímetros cuadrados. Consta de planta semisótano, planta baja y planta alta. Linda por todos los puntos cardinales con terreno propio. Se accede al edificio desde la calle San José a través de una escalera.

**Cargas:** Libre de cargas.
**Datos registrales:** Inscrito al Tomo 1151, Libro 94, Folio 31, Finca 4818, del Registro de la Propiedad de Azpeitia.
**Datos catastrales**: Número fijo: 3037144 Y. Referencia catastral: 6094314
**Calificación del inmueble**: Bien de dominio público.
**Datos urbanísticos:** Equipamiento social, G.5.3.1. A.U. 03 Arrabal Odieta, San Jose

En cualquier caso, antes de la cesión, el Ayuntamiento segregará de la finca matriz nº 4818 para crear otra finca registral: El edificio llamado ampliación del hospital residencia, y la parcela necesaria para su funcionamiento. El titular de la finca registral segregada será el Ayuntamiento.

c.- A fin de que la Diputación Foral asuma la competencia del servicio se subrogarán los derechos y las obligaciones derivadas de los contratos suscritos por el Ayuntamiento de Zumaia y por la Residencia San Juan.

d.- El personal adscrito al servicio que ofrece la Residencia San Juan pasará a ser de la titularidad del organismo autónomo "Kabia".

e.- El Ayuntamiento de Zumaia y la Residencia San Juan gestionarán de forma transitoria las aportaciones de los usuarios hasta que la Diputación Foral de Guipúzcoa pueda adecuar su organización y como máximo hasta el 31 de diciembre 2015. Una vez finalizado el plazo de

transición, el Ayuntamiento de Zumaia o la Residencia San Juan presentarán los cobros y los pagos que se han realizado en dos meses para que la Diputación Foral de Guipúzcoa haga la liquidación en el plazo de un mes. En base a que el saldo sea positivo o negativo se harán las devoluciones correspondientes.

**TERCERA**.- El Ayuntamiento de Zumaia creó la fundación “Zumaiako Zaharren Egoitza” y publicó los estatutos en el Boletín Oficial de Guipúzcoa el 10 de enero de 1990.

A pesar de haberse constituido como fundación actualmente a raíz de cambios legislativos (más concretamente a raíz de del artículo 85.3 de la Ley 7/1985) se ha convertido en organismo autónomo.

El procedimiento para la disolución de la Residencia San Juan, deberá de ajustarse a los trámites establecidos en el artículo nº 49, es decir, aprobación inicial del pleno, exposición pública durante 30 días, y en el caso de que se presentaran alegaciones resolverlas, si no hubiera alegaciones la aprobación inicial se elevaría a definitiva; en cualquier caso, la publicación en el Boletín Oficial de Guipúzcoa será un trámite ineludible.

La aprobación inicial necesitará de mayoría absoluta, conforme al artículo 47 de la ley 7/1985.

La disolución, una vez aprobada definitivamente supondrá la integración en el Ayuntamiento del patrimonio, la contabilidad, y demás:

- La Residencia San Juan perderá su personalidad jurídica como organismo autónomo.
- Deshacer la adscripción del edificio de la Residencia y de la parcela recogida en el convenio. De esta manera el Ayuntamiento recuperará la gestión, el mantenimiento etc. de los bienes a cargo del presupuesto municipal. Así como los demás bienes que estuvieran adscritos y los bienes patrimoniales de titularidad de San Juan.
- Los contratos de servicios que estén vigentes hoy en día los asumirá en Ayuntamiento.
- Integración de la contabilidad de la Residencia San Juan en la contabilidad del Ayuntamiento antes del 31 de diciembre.
- El personal con contrato laboral pasarán a ser competencia del organismo autónomo KABIA, tanto orgánicamente como funcionalmente.

En cualquier caso, en base al convenio aprobado el servicio que ofrece la "Residencia San Juan" queda en manos de la Diputación Foral de Guipúzcoa y más concretamente en manos del organismo autónomo KABIA de modo que la integración mencionada se hará en última instancia con el destinatario final, es decir, con la Diputación Foral de Guipúzcoa, siempre y cuando este último destinatario cumpla con el objeto del convenio.

Por todo ello se hace la siguiente **PROPUESTA**:

*Primera.-Dar la aprobación inicial a la tramitación para ejecutar el traspaso de competencias del servicio que se da a las personas mayores en la Residencia "San Juan" a favor de la Diputación Foral de Guipúzcoa. Aprobando así la disolución del organismo autónomo Residencia San Juan.*

*Segunda.- Traspasar los bienes convenidos a la Diputación Foral de Guipúzcoa a fin de cumplir lo acordado en el convenio.*

*Tercera.- Publicar en el Boletín Oficial de Guipúzcoa la aprobación inicial para que esté expuesto al público durante 30 días.*

En Zumaia, a 10 de noviembre de 2015

Presidente de la comisión
Oier Korta Esnal

**PARTE RESOLUTIVA**

**A favor: 13 boto (6 EAJ-PNV, 6 EH BILDU, 1 ES-SV)**

**En contra: 0**

**Abstenciones: 0**

**ACUERDO:**

Primera.-Dar la aprobación inicial a la tramitación para ejecutar el traspaso de competencias del servicio que se da a las personas mayores en la Residencia "San Juan" a favor de la Diputación Foral de Guipúzcoa. Aprobando así la disolución del organismo autónomo Residencia San Juan.

Segunda.- Traspasar los bienes convenidos a la Diputación Foral de Guipúzcoa a fin de cumplir lo acordado en el convenio.

Tercera.- Publicar en el Boletín Oficial de Guipúzcoa la aprobación inicial para que esté expuesto al público durante 30 días.

**------------------------**

**1.3.- DECLARACION INSTITUCIONAL: 25 DE NOVIEMBRE “DIA INTERNACIONAL CONTRA LA VIOLENCIA HACIA LAS MUJERES”**

2015IAKU0011-005-002

# "DÍA INTERNACIONAL CONTRA LA VIOLENCIA HACIA LAS MUJERES" DECLARACIÓN INSTITUCIONAL DE 25 DE NOVIEMBRE

Con motivo del 25 de Noviembre, fecha declarada por la Asamblea General de Naciones Unidas como "Día Internacional para la eliminación de la violencia contra las mujeres, manifestamos nuestro firme rechazo hacia cualquier expresión de violencia contra las mujeres en todas sus dimensiones (física, psicológica, sexual, simbólica…), así como a las distintas formas de sexismo (tanto las más visibles o macro, como las micro, más invisibilizadas y normalizadas en lo cotidiano) incluyendo la asignación de roles estereotipados por sexos o la invisibilización de las mujeres en los distintos ámbitos de la vida, entre otras. Reafirmamos, asimismo, que nos encontramos ante un problema estructural, Para conseguir la igualdad entre hombres y mujeres es imprescindible implementar políticas de igualdad, tal y como recomiendan numerosas personas expertas y organismos internaciones.

La violencia contra las mujeres se asienta en la estructura patriarcal de la sociedad, las mujeres sufren la discriminación en sus vidas, la sociedad ofrece diferentes oportunidades a mujeres y a hombres y todavía limita la libertad de las personas dependiendo del sexo con el que hayan nacido. Debemos esforzarnos en construir una sociedad en la que todas las personas tengan la libertad de ser como quieran ser, la oportunidad de desarrollarse en todo su potencial y en la que reciban un trato igualitario y respetuoso con los derechos humanos.

Aspiramos a vivir en una sociedad que garantice los buenos tratos para todas la personas, una sociedad que dé un paso más y además de mostrarse contra la violencia hacia las mujeres, camine firmemente hacia la paridad entre mujeres y hombres. Abogamos por una sociedad en la que las relaciones entre las personas se basen en el respeto, la autonomía y la igualdad. Respetar no sólo significa no agredir, significa también garantizar que cada persona pueda dibujar su trayectoria vital sin la limitación que supone la desigualdad.

Desde las instituciones debemos asumir nuestra responsabilidad social y política en la construcción de una sociedad que fomente los buenos tratos, empezando por el ejercicio personal y colectivo de revisar nuestros prejuicios, roles y actitudes cotidianas.

Por ello:

- Nos comprometemos a desarrollar en el ámbito de nuestras competencias, una política activa, integral y coordinada a favor de la igualdad de mujeres y hombres y de los buenos tratos.
- Nos comprometemos a mantener el protocolo contra la violencia machista aprobado por el ayuntamiento de Zumaia.
- El ayuntamiento de Zumaia, se compromente a consolidar y seguir dotando de los medios necesarios al departamento de igualdad, para continuar trabajando por la igualdad real entre hombres y mujeres en nuestro municipio.
- El ayuntamiento de Zumaia emplaza a la Diputación Foral de Gipuzkoa y al Gobierno Vasco a establecer las partidas presupuestarias pertinentes para los programas de igualdad entre mujeres y hombres, así como a tomar todas las medidas necesarias para erradicar todo tipo de violencia y maltrato hacia las mujeres utilizando los mendios necesarios en este proceso.
- Invitamos a la ciudadanía a adoptar compromisos personales y colectivos a favor de la igualdad, todos y cada uno de los días del año, y a participar activamente en los diferentes actos que se lleven a cabo con motivo del 25 de Noviembre en el municipio de Zumaia. así como en el programa de prevención y educación para la igualdad entre la juventud "Beldur Barik".

Zumaia, a 11 de Noviembre de 2015

EAJ-PNV EH BILDU SV-ES

**PARTE RESOLUTIVA**

**A favor: 13 votos (6 EAJ-PNV, 6 EH-BILDU; 1 SV-ES)**

**En contra: 0**

**Abstenciones: 0**

**ACUERDO:** Se ha aprobado la declaración institucional 25 de noviembre “dia internacional contra la violencia hacia las mujeres”

----------------------------

No habiendo más temas que tratar, el alcalde-presidente da por finalizada la sesión cuando son las dieciocho horas seis minutos de la tarde y yo, el Secretario , doy fe.

El Secretario